Azterlan hau egiteko kontuan hartu da haren araubide juridikoa. Batetik, 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Hau dio 7. artikulua: «Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira». Bestetik, 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Horrek garatzen du 2/2016 Legean hizkuntza eragina ebaluatzeaz jasotakoa; VI. kapituluan jasotzen da ebaluazioa egin beharra, eta prozedura nola egin. Getaria arnagunea denez, halako proiektu guztiei dagokie ebaluazioa egitea.

1. PROIEKTUAREN/PLANAREN AZALPEN OROKORRA

1.1. PLANAREN EDO PROIEKTUAREN SUSTATZAILEA EDO FUNTSEZKO ORGANOA.

Getariako udala.

1.2. PROIEKTUAREN/PLANAREN HELBURUAK.

Potzuaga-gaina eremurako ezarritako hirigintza-araubidea aldatzea, indarrean dagoen udal-plangintzan mugatuta dagoena. Horretarako, bereziki, eremuari esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna handitzea planteatzen da.

1.3. PROIEKTUA EDO PLANA BERAREN DESKRIBAPENA.

Hiru antolamendu-aukera planteatzen dira, baina 2. aukera da planteatutako helburuei erantzuten diena. Honako esku-hartzeak egitea aurreikusten du plangintzak:

- 29.489 m² (t)ko eremua antolatzea proposatzen da. Eremu horretan, bizitegi-eremu orokor nagusi bat (24.524 m²) eta bide-sistema orokor bana (3.231 m²) eta espazio libeak (1.734 m²) identifikatuko dira.
- 21.000 m²-ko (t) hirigintza-eraikigarritasun berri bat proposatzen da, eta horietatik 300m² (t) hirugarren sektoreko erabileretara bideratuko dira. 200 etxebizitza berri antolatuko dira, 100 m² (t) ingurukoak, batez beste. Hala, 11.385 m² (t) babes publiko sozialeko etxebizitzetara bideratzen dira, eta 4.140 m² (t) babes publiko tasatuko etxebizitzetara; gainerako 5.175 m² (t) etxebizitza libreetara.
- Zuzkidura publikoek, gutxienez, 8.400 m² izango dituzte.
- Bizitegi-garapen berri bat da, babes publikoko etxebizitzak (110 inguru babes sozialekoak eta 40 tasatu) eta etxebizitza libreak (50 inguru) egiteko. Sestra azpiko garajeak izango dituzte.



1.1. PROIEKTU EDO PLANAREN DENBORA-AURREIKUSPENAK.

Ekimena gauzatzeko programazioa ondoz ondoko faseetan zehaztuko da. Arau Subsidiarioen aldaketa onartu ondoren, hamabost hilabeteko epe aurreikusgarrian, Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP) bat izapidetu beharko da, dagozkion egikaritze-unitateen kudeaketa eta aurreikuspena zehaztuko dituen.

UJP onartzeak egikaritze-unitate bakoitzaren birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak izapidetzea ekarriko luke; hala, lehen faseari dagokion eraikuntza- eta urbanizazio-jarduera hiru urte barru has liteke. Hala ere, dokumentu horiek aldi berean izapidetu eta eraikuntza-prozesuari ekin ahal izango litzaioke bi urte pasatxoko epean, 2026. urtearen hasieran.

Eremuaren betearazpena ekimen pribatutik abiatzea aurreikusten da, horretarako epe egokiak ezarriz. HAPOn aldaketak, gainera, antolamendu xehatua jasoko du.

2. EBALUAZIO-LANAREN IBILBIDEA

Aipatutako legean eta dekretuan zehaztutako urratsak egin dira eragin linguistikoa ebaluatzeko. Hauek izan dira pauso nagusiak:


1. **Irismen dokumentua.** 2024ko martxoan eman zitzaion hasiera hizkuntza inpaktuaren prozedurari, irismen dokumentuarekin. Horretarako, proiektuaren oinarrizko informazioa jaso zen, eta udalerriko datuak aztertu ziren. Euskararen proiektzio indizea eta bilakaera indizea kalkulatu ziren, hauskortasun indizea aintzat hartuta. (1. Eranskina)
2. **Hizkuntza inpaktuaren azterlana.** Irismen dokumentuak eragin negatiboa aurreikusi zuenez, hizkuntza inpaktuaren azterlana egin behar izan da, Eusko Jaurlaritzaren ELE aplikazioa erabilia (2. Eranskina). Hori jaso da txosten honetan. Hiru urratsetan egin da: lehenik, hizkuntza eraginaren intentsitatea kalkulatu; bigarrenik, funtsezko alderdiak aztertu eta hobetzeko neurriak identifikatu; eta, azkenik, neurri zuzentzaileak proposatu.
3. **ELE batzordea.** Azterlanaren jarraipena egiteko, honako hauek parte hartu dute: Goizane Arana UEMako teknikaria, Haritz Alberdi Getariako alkatea, Imanol Agirre Udal arkitektoa, Marivi Aranguren turismo teknikaria eta Erun Ortiz kultura teknikaria.

3. TESTUINGURUA

Ikerketa osatua izan dadin, ezinbestekoa da testuingurua kontuan hartzea: Getariako egoera aztergai hartzea. Atal honetan, beraz, udalerrria bera hartuko da aztergai, proiektua testuinguruan jartze aldera.


a. Datu demografikoak

Biztanleak irabaziz doa Getaria. 1900. urtetik 1970. urtera biztanleak irabaziz joan da, gero gainbehera txiki bat egon da 1990 arte eta hortik aurrera gora egin du biztanleriak. 2020an 2794 biztanle zituen Getariak.




Iturria: Eustat

Biztanleen jatorriaren bilakaera aztertzen badugu 2001. urtetik hona, Hego Euskal Herritik kanpo jaiotakoen ehunekoak gora egin du ia 11 puntu eta udalerriak zein Hego Euskal Herrian jaiotakoen ehunekoak behera egin du.



Iturria: Eustat

Adinaren banaketari erreparatuz gero, 30 urtetik 60 urtera bitarteko pertsonen ehunekoa da altuena, eta 45-59 adin-tartea da nabarmen nagusi.




Iturria: Eustat

b. Adierazle linguistikoak


Euskararen egoera aztertzeko, datu hauek hartuko dira ikergai: Euskararen ezagutza (zenbatek dakiten), lehen hizkuntza (zenbat umek duten ama hizkuntza gisa), etxeko erabilera eta kaleko erabilera. Lehen hiruei dagokienez, EUSTATEk emandako datuak dira.

Ezagutzari dagokionez, euskaraz hitz egiteko gai den pertsona kopuruak behera egin du azken urteetan. 1991tik gaur egunera arte joera beheranzkoa da nabarmen. Gaur, 10 amezketarretatik 8 dira euskaraz hitz egiteko eta ulertzeko gai. Erdaldunak, aldiz, % 8,7a dira. Kasu horretan joera goranzkoa da azken hamarkadetako datuak erreparatuta.




Iturria: Eustat

Ama hizkuntzari dagokionez ere euskarak beherakada handia izan du azken 30 urteetan. 1991n getariarren % 91,4k zuen euskara lehen hizkuntzatzat, eta gaur egun kopurua % 68,9ra jaitsi da, 20 puntutik gora. Bestalde, geroz eta gehiago dira lehen hizkuntza gisa gaztelania eta beste hizkuntza batzuk dituztenak. Gaur egun, getarirren %24,7k du ama hizkuntza moduan euskara ez den beste hizkuntza bat.



Iturria: Eustat

Etxeko erabilerak ere beheranzko joera du euskarak, 1991ko datuekin alderatuta, zehazki 23 puntu egin du behera. Gaztelania eta beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen kopuruak, aldiz, 28 puntu egin du gora.



Iturria: Eustat

C. Euskararen inguruko baliabideak

Getariako Udala UEMAko kide da, eta indarrean du euskararen erabilera sustatzeko plana.

4. IRISMEN DOKUMENTUA

Eragin linguistikoaren ebaluazioaren prozedurari 2024ko martxoaren 2an idatzi zen irismen-dokumentuarekin eman zitzaioan hasiera (1. Eranskina). Irismen-dokumenturako, euskararen proiektzio indizea (PI) eta bilakaera indizea (BI) kalkulatu ziren, azken hau hauskortasun-indizea (HI) kontuan izanda.

Planaren/proiektuaren eraginez aurreikus daitekeen biztanle/bisitari berrien kopurua 30 biztanlekoa da. Eta hori oinarri hartuta hauek izan ziren indizeen emaitzak:

Euskararen proiektzio-indizea: **-6,06**

Hauskortasun indizearen eragina: **0**

Bilakaera-indizea: **-6,06**

Emaitza horiek aintzat hartuta, hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar dela ondorioztatu du irismen-dokumentuak.

5. HIZKUNTZA INPAKTUAREN INTENTSITATEA

Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) Galdetegia erabili da. Honek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du. Hizkuntzaren ikuspegitik planak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten lagunduko du.

Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko aldagai hauek hartu dira kontuan:

- a. Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.
- b. Biztanleen hizkuntza-gaitasuna.
- c. Biztanleen hizkuntza-erabilera.
- d. Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.
- e. Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
- f. Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.

Aldagai guztiak aztertu ondoren ondorioztatu da eraginaren intentsitatea **GARRANTZIA GUTXIKOA** izango dela.

Aldagaiz aldagai honakoak izan dira emaitzak:

Aldagaia	Balorazioa	Gako nagusiak
Komunitatearen kultureta gizarte bizitza	0,00 – Ez du eraginik	Etxebizitza berrien ondorioz ez da espero harreman sareak aldatzerik. Aldaketak oro har gertatzen ari dira herrian, baina ez da espero etxebizitza berriak izango direnik aldaketa horren eragile.
Tokiko euskararen ezagutza	10,00 - Ertaina	Asmoa da etxebizitzak faseka egitea, aukera egon dadin getariarrek eskuratzeko etxebizitzak. Bertakoen eskaeraren eraberako eskaintza egin nahi da. Baina, gerta liteke, Getaritik kanpokoek erostea eta euskaldunak ez izatea. Gainera, hutsak geratuko diren etxeetara etor daitezke biztanle berriak. Dena dela, ez da espero aldaketa handirik.
Tokiko euskararen erabilera	24,00 - Handia	Etxebizitza berrietara bizitzera etorriko den gehiengoa Getariakoa edo asko jota ingurukoa izatea espero da. Dena dela, hutsik geratzen diren etxeetara etor daitezke kanpokoak eta tartean euskara ez

		dakitenak. Horrek eragina izan dezake erabileran, baina ez da espero aldaketa handirik gertatuko denik. Baina komeni da gaia tentuz aztertzea.
Hizkuntza paisaia	0,5 - ez du eraginik izango	Etxebizitza eremu berriaren ondorioz ez da espero hizkuntza paisaian aldaketarik emango denik. Orain arteko egoera ez da aldatuko.
Zerbitzuen, jardueren edo egitasmoen komunikazioa	1 - baxua	Ez dago Udalaren esku etxebizitzaren promozioa zein hizkuntzatan egingo den, baina Udalak sustatuko du promozioak euskaraz egitea. Gainontzean ez da komunikazioetan aldaketarik espero.
Euskarazko zerbitzuen eskaintza	4 - baxua	Komertzio baterako aukera egongo da eta baliteke langileak ez izatea euskaldunak. Udal ekipamenduetan ziurtatuta dago euskararen presentzia.
GUZTIRA		35.5 - Garrantzi gutxikoa

Eranskin gisa jaso da eragin linguistikoaren intentsitatea neurtzeko taularen agiria osorik.

6. FUNTSEZKO ALDERDIEN AZTERKETA

Behin errealitate soziolinguistikoan eragina izango duela baieztatuta, eta eraginaren intentsitatea kalkulatuta, proiektu batek jaso beharreko funtsezko alderdiez galdetu da. Galdetegian, euskararen erabilera eta ezagutza zaintzeko, esku-hartzearen arabera kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak jaso dira. Funtsezko alderdien galdetegia betetzean, Plana hobetzeko neurriak identifikatu dira.

Funtsezko alderdiek proiektuaren eragina saihesten edo murrizten lagunduko dute.

Batzuk zuzenean ezagutza eta erabilerari lotutakoak dira eta beste batzuk zeharkakoak, komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitzari zein elkarbizitzari lotuago daudenak. Komunitate bizitza osasuntsu batek erabilera bera hazten lagunduko du.

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera jakiteko adierazle nagusiak biztanle/langile/bisitari/erabiltzaile kopurua aldatzea, edota horien ohiturak aldatzea izango da. Kopuru hori aldatzea edota ohiturak aldatzea eremu horretan egingo diren esku hartzeen eraginez gertatuko da: kasu konkretu honetan etxebizitza, espazio publiko ireki eta ekipamenduen atalak bete dira.

Plana garatzerako orduan, hizkuntzaren alderdia ere aintzat hartzea funtsezkoa da. Hizkuntzarengan eragina izango duten mugatzaile bakoitzeko hirigintza garapenari zein hizkuntzari estuki loturiko funtsezko alderdiei buruz ere galdetzen da galdetegian. Helburua da, Plana garatzean, funtsezko alderdi horiek zeintzuk diren jabetzea eta ea plangintzak, egitasmoak berak horiek barne biltzen dituen baloratzea. Funtsezko alderdi batzuek ez dute zuzenean euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko, baina bai lagunduko dute komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza osasuntsuago baten. Izan ere, ezagutza eta erabilerarekin batera, komunitate bizitza osasuntsua izateak, lekuan lekuko hizkuntza-erabilerari eta -ezagutzari

eusten lagunduko dio. Eta alderantziz ere gertatzen da, alegia, erabilera indartzeak

komunitate bizitza ere indartu dezake.

Funtsezko alderdiei buruzko azterketan, honako eremu hauek kontuan hartu dira:

- Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak, edo planaren izaerari buruzkoak.
- Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.
- Kokapenari edo lekukotzeari buruzkoak.
- Planteatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.

ETXEBIZITZAK

Izaerari dagozkionak:

- Etxebizitzen batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak izateko asmoa du planak, legeak ezartzen duen markoa oinarri hartuta. Etxebizitzen %75 babes ofizialeko eta tasatuek osatzen dute.
- Etxebizitzetatik oinarritzko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen du planak. Eremu berde zabala izango da etxebizitzen inguruan. Gainera, eremu berde eta ireki zabala egon dadin, hobetu egingo da planean aurreikusitakoa, etxe bloke batean pareta handia aurreikusten zelako.
- Irisgarritasuna kontuan hartu da. Igogailua egongo da eremura, eta oinezko ibilbide irisgarria.
- Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten dira etxebizitzetatik gertu, “auzo bihotza” deituriko gune zabal eta berdea aurreikusi da.

- Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzeari dagokionez, orain arteko etxebizitza-tipologiak aurreikusi dira, lau solairu+atikoa.

Dimentsioari dagozkionak:

- Eraikuntza faseka egingo da, ahalik eta gehien ordenatu nahi baita etxebizitzaren eraikuntza, eskaera eta eskaintza orekatzeko asmoz.
- Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzea ez da dokumentu honen egitekoa, baina beste bide batzuetatik badago asmoa herritarrek bertan geratzeko aukera sustatzeko neurriak hartzeko: erroldak eskatuta, bestea beste.
- Ez da neurtu aurretik egindako etxebizitzek izan duten inpaktua. Dena dela, Sahatsa eremura bizitzera etorritako gehienak bertakoak direla adierazi da batzordean.

ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK

Izaerari dagozkionak:

- Espazio publiko irekiei askotariko erabilera emateari dagokionez, dokumentu honi ez dagokio hori zehaztea, beraz, garrantzitsua izango da urbanizazio proiektuan gai honi dagozkionak aurreikustea eta zehaztea.

Lekukotzeari dagozkionak:

- Zona berde zabal bat aurreikusten da, eremuari ondo egokitzen zaiona.
- Eremu hau hiriguneko beste espazio publikoekin lotura izango du.
- Hilerria, tanatorioa, anbulatorioa eta eskola gertu daude.

EKIPAMENDUAK

Izaerari dagozkionak:

- Udal ekipemandu bat aurreikusi da eta beste eremu bat gordetzen da ekipamendu baterako. Komertziorako lokal bat ere gorde da.

Lekukotzea:

- Oinarrizko ekipamenduak gertu daude. Aldapa tarteko dago, baina irisgarritasuna bermatzeko neurriak aurreikusi dira.

Hizkuntza-erabilerari dagozkionak:

- Hizkuntza paisaiari lotuta, Udalak eskatuko dio eraikuntza enpresari euskara kontuan izateko. Dena dela, irizpideak ondo zehaztuta eta idaztea izatea komeni da.

Neurri aringarri eta osagarriak:

- Udalak badu euskara plana eta UEMAko kide da. Dena dela, biztanle berrien etorrerarekin, aurreikusi beharko dira neurri aringarriak.

7. ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Hizkuntza inpaktuaren intentsitateari dagokionez, eragina garrantzia gutxikoa dela aurreikusi da, -35,5 puntukoa. Eraikuntza garaian ez da aurreikusi eragin nabarmenik, izatekotan hizkuntza paisaian gerta daitekeena, horregatik garrantzitsua izango da adi egotea. Langileei dagokionez, aurreko esperientziak kontutan hartuta, oro har, ez dute herriko jatetxeetan kontsumitzen, menuak garestiak direlako. Egunero joan-etorriak egiten dituzte lanera.

Etorriko diren biztanle berriei dagokionez, irismen dokumentuaren arabera, 600 bizilagun berrietatik 285 bizilagun erdaldunak izan daitezke. Ezagutzan eta erabileran izango duen eragina ertaina eta altua izan daitekeela aurreikusi da. Kontuan izan behar da familia bakar

batek eragin handia izan dezakeela hizkuntza ohituretan, eta ezagutzan izan daitekeen aldaketak erabileran eragin handiagoa izan dezakeela. Dena dela, aurreikuspena da bizitzera joango diren gehienak getariarrak izatea. Kontuan hartu behar da etxebizitzaren %75 babes ofizialeko eta tasatuek osatzen dutela eta aurreko esperientziak ikusita, etorri izan direnak bertakoak izan dira ehuneko handiengan. Horrenbestez, garrantzitsua izango da etorriko direnen jarraipena egitea eta horiei harrera egokia egitea, horrekin batera, baita herritarrak ahalduntzea.

Hizkuntza paisaia eta zerbitzuen eskaintzari dagokionez, ez da aurreikusten aldaketa esanguratsurik. Obra garaian hizkuntza irizpideak ondo bermatzea garrantzitsua izango da.

Funtsezko alderdiei dagokionez, jardunbide egokiak barnebiltzen ditu proiektuak, oro har. Hainbat puntu ezin dira planean gehitu, eta horregatik izango da garrantzitsua jardunbide egokiak bermatzeko bestelako bideen bidez lanketa egitea eta irizpideak zehaztea. Neurri zuzentzaileetan aurrerago landu behar diren dokumentuak zein diren jasotzea izango da asmoa.

NEURRI ZUZENTZAILEAK

Planifikazio garaian:

1. Ekimena gauzatzeko programazioa faseetan zehazteko dokumentua garatzea, ahal dela herritarren eskaeren arabera eraikitzeko. Horrek, aldi berean, aukera emango du neurriak ezartzen joateko eta eragina leuntzen joateko.
2. Exekuzio planean espazioek askotariko erabilera izan dezaten eta herritarren kohesioa eta elkarbizitza sustatzeko neurri egokiak jaso.
3. Herritarrak bertan geratzeko neurriak eta estrategiak aztertu: erroldak eskatzea, komunikazioa estrategikoki landu herritarrei begira.

Eraikuntza garaian:

4. Eraikuntzako enpresari hizkuntza paisaiaren gomendio irizpideak helaraztea.

5. Hizkuntza irizpideen jarraipena egitea.
6. Etxebizitzan inguruko iragarkirik jarri behar izanez gero, eskualdeko/herriko komunikabideetan jartzea.
7. Herriko tabernari eta ostatuetako langileei hizkuntza irizpideen berri ematea. Langileak hara doazenean, lehen hitza euskaraz egiten jarrai dezaten animatzea.

Etxebizitzak egin ostean

8. Etxebizitzan erroldatzen diren herrira etorritako biztanle berriei udaleko euskara sustatzeko lan ildoetan sartzeko aukera eskaintzea, baita herri bizitzako hainbat egitasmoetara ere.
9. Euskara ez dakienik etorriko balitz, euskaraz ikasteko laguntzen berri ematea.
10. Kanpotik datozen pertsonen kasuan Getariako ezaugarrien berri ematea, baita herriak eskaintzen dituen aukera eta zerbitzuen berri ere. Horrekin batera euskararen presentziaz eta arnasmuneen garrantziaz hitz egitea.
11. Herritarrak ahalduntzeko programak abiatzea.

Ekipamendua egin ostean

12. Ekipamenedu publikoaren kudeaketarako hizkuntza irizpideak ezartzea.
13. Ekipamendu pribatua irekitzeko baimenak ematean, hizkuntza aholkularitza eskaintzea eta langileak euskaldunak izateko aholkua helaraztea.

JARRAIPEN BATZORDEA

Neurri zuzentzaile hauei jarraipena egiteko ELE Batzordea bilduko da urtean behin.



Getariako Udala



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

1. ERANSKINA

Irismen dokumentua



Getariako Udala



2. ERANSKINA.

Azterlana

PLANAREN/PROIEKTUAREN IRISMEN-DOKUMENTUA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Planaren/proiektuaren izena:

“XVIII POTZUAGA-GAINA” HIRIGINTZA-EREMUARI BURUZKO

Eragin eremua:

Gipuzkoa - Getaria

Teknikarien izenak:

GOIZANE ARANA AREXOLALEIBA

Batzordearen izena:

ELE batzordea

► Proiektuaren helburuak hauek dira:

Potzuaga-gaina eremurako ezarritako hirigintza-araubidea aldatzea, indarrean dagoen udal-plangintzan mugatuta dagoena, adierazitako udal-helburuari erantzuteko. Horretarako, bereziki, eremuari esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna handitzea planteatzen da.

Planak tokiko biztanle-kopuruan/egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea eskatu dio Getaria(e)ko Udalak ELE batzordeari. Horregatik, plan horrek hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ote duen jakiteko beharrezkoak diren indizeen kalkuluak egin dira.

- **BIZTANLEAK:** Planaren bidez aurreikus daitekeen biztanle berrien kopurua 600 (e)koa da. Kalkulu hori egiteko kontuan hartu dira 200 etxebizitza eta aurreikusi da etxebizitza bakoitzera 3,00 pertsona etorriko direla bizitzera.



Hori oinarri hartuta, hauek izan dira indizeen emaitzak:

	Biztanleak
Euskararen proiektzio-indizea	-6,06
Hauskortasun-indizea	10,66
Hauskortasun indizearen eragina	0,00
Bilakaera indizea	-6,06
Bilakaera indize orokorra	-6,06

- **BIZTANLEAK: Bilakaera indizearen -6,06 puntuko emaitza aintzat hartuta**, hizkuntza inaktuaren azterlana egin behar dela jakinarazten dizuegu. Irismen-dokumentu hau planaren espedienteari gehituko zaio, balioa izan dezan.

Alkatearen sinadura

HARITZ ALBERDI
ARRILLAGA
2024/7/10

Teknikariaren sinadura

GOIZANE
ARANA
AREXOLA
LEIBA

Digitalki
sinatuta
norengandik:
GOIZANE
ARANA
AREXOLALEIBA

ERAGIN LINGUISTIKOAREN
EBALUAZIOA
HIZKUNTZA INPAKTUAREN
AZTERLANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

PLANAREN SUSTATZAILEAK

ELE batzordea

PLANAREN HELBURUAK

Potzuaga-gaina eremurako ezarritako hirigintza-araubidea aldatzea, indarrean dagoen udal-plangintzan mugatuta dagoena, adierazitako udal-helburuari erantzuteko. Horretarako, bereziki, eremuari esleitutako hirigintza-erakigarritasuna handitzea planteatzen da.



2. EBALUAZIO PROZESUA

IRISMEN DOKUMENTUA

2024ko martxoan eman zitzaion hasiera hizkuntza inpaktuaren prozedurari, irismen dokumentuarekin. Horretarako, proiektuaren oinarritzko informazioa jaso zen, eta udalerriko datuak aztertu ziren. Euskararen proiektzio indizea eta bilakaera indizea kalkulatu ziren, hauskortasun indizea aintzat hartuta. Txosten honen eranskinetan erantsi da irismen dokumentua.

HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERLANA

Irismen dokumentuak aurreikusi zuen plan/proiektuak eragin negatiboa izango duela aukeratutako udalerrian, Getarian, eta, beraz, hizkuntza inpaktuaren azterlana egin da. Hori jaso da txosten honetan. Hiru urratsetan egin da: lehenik, hizkuntza eraginaren intentsitatea kalkulatu; bigarrenik, funtsezko alderdiak aztertu eta hobetzeko neurriak identifikatu; eta, azkenik, neurri zuzentzaileak proposatu.

4. IRISMEN DOKUMENTUA

Eragin linguistikoaren ebaluazioari hasiera emateko, 2024ko martxoan egin zen irismen dokumentua. Analisiak ondorioztatu zuen azterlana egin behar zela, planak eragin negatiboa izan baitezake.

Irismen dokumentu hori lantzeko, legerian ezarritako pausoak eman ziren, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak taxututako jarraibideak eta aplikazio informatikoak baliatuz.

GALDETEGI LABURRA

Planaren eraginari begiratuta, oinarrizko hiru galdera erantzun behar dira: biztanleen kopurua areagotuko ote den, bisitari gehiago erakarriko ote diren edo egoera soziolinguistikoan bestelako eraginik izango ote den. Plan/proiektu honen kasuan galdera honek du baiezko erantzuna.

Galdera	Bai / Ez	Azalpena
1.- Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanle kopuruan?	Bai	Etxebizitzak egitea aurreikusten da, 120 edo 200 etxebizitza, onartuko den alternatibaren arabera.
2.- Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan?	Ez	
2.1.- Bisitariak turismoari lotutakoak izango al dira?	Ez	
2.2.- Bisitariak azpiegitura edota zerbitzu bati lotutakoak izango dira? (hezkuntza, industria, kirola, merkataritza, osasuna, kultura...)	Ez	
3.- Planak/egitasmoak egoera soziolinguistikoan beste era batera eragin nabarmenik izango du?	Ez	

BILAKAERA INDIZEA

Aldagaia	Balioa
Biztanleak guztira	2.783
Euskaldunak-guztira %	81,53
Lehen hizkuntza euskara - guztira %	75,38
Etxean erabiltzen den hizkuntza guztira %	71,57
Euskara zerbitzua	Bai
Gizartean euskara sustatzeko plana	Bai
Faktorea bisitari kopurua	4,00
Faktorea euskaldunak	5,00
Faktorea lehen hizkuntza	5,00
Faktorea etxeko hizkuntza	5,00
Faktorea euskararen inguruko egituraketa	0,00
Hauskortasun indizea	10,66
Hiren eraginaren balioa	0,00
Euskararen proiektzio indizea	-6,06
Bilakaera indizea	-6,06
Txostena egin beharra	Azterlana bai

5.HIZKUNTZA INPAKTUAREN INTENTSITATEA

Behin ondorioztatuta planak eragin negatiboa izango lukeela, hurrengo urratsa da inpaktu horren intentsitatea kalkulatzeko. Horretarako, eragin linguistikoaren ebaluaziorako galdetegia baliatu da; helburua da eragina identifikatzea eta ebaluatzea, eta planak hizkuntza aldetik izan ditzakeen gabeziak sumatzea. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, honako aldagai hauek izan dira kontuan:

Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza. Plana egingo den tokiko komunitatearen ohituretan izan daitezkeen aldaketak: aisialdia, espresio kulturalak, harreman moduak...

Tokiko euskararen ezagutza. Planaren eraginez udalerriko ezagutza tasa aldatuko den.

Tokiko euskararen erabilera. Planaren eraginez udalerriko erabilera tasa aldatuko den.

Hizkuntza paisaia. Zer ikusi edo entzun daitekeen, idatzizko eta ahozko elementuak.

Egitasmoaren komunikazioa. Kanpora begirako komunikazioetan nola jokatu den.

Euskarazko zerbitzuen eskaintza. Eremu berrian euskarazko eskaintza aldatuko den.

Ondorioztatu da plan/proiektuak honelako eragina edukiko duela.

Aldagaia	Balorazioa
Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza	0,00 - Eragin
Tokiko euskararen ezagutza	6,00 - Baxua
Tokiko euskararen erabilera	24,00 - Handia
Hizkuntza paisaia	0,50 - Eragin
Egitasmoaren komunikazioa	1,00 - Baxua
Euskarazko zerbitzuen eskaintza	4,00 - Baxua
GUZTIRA	35.5 - Garrantzi gutxikoa



AZALPEN OROKORRA

Tokiko euskararen ezagutza: Asmoa da etxebizitzak faseka egitea, aukera egon dadin getariarrek eskuratzea etxebizitzak. Bertakoen eskaeraren eraberako eskaintza egin nahi da, beti ere, aukera dagoen heinean. Baina, gerta liteke, Getaritik kanpokoek erostea eta euskaldunak ez izatea. Gainera, hutsak geratuko diren etxeetara etor daitezke biztanle berriak. Dena dela, ez da espero aldaketa handirik.

Tokiko euskararen erabilera: Etxebizitza berrietara bizitzera etorriko den gehiengoa Getariakoa edo askota jota ingurukoa izatea espero da. Dena dela, hutsik geratzen diren etxeetara etor daitezke kanpokoak eta tartean euskara ez dakitenak.

Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza: Etxebizitza berrien ondorioz ez da espero harreman sareak aldatzerik. Aldaketak oro har gertatzen ari dira herrian, baina ez da espero etxebizitza berriak izango direnik aldaketa horren eragile.

Hizkuntza paisaia: Etxebizitza eremu berriaren ondorioz ez da espero hizkuntza paisaian aldaketarik emango denik. Orain arteko egoera ez da aldatuko.

Euskarazko zerbitzuen eskaintza: Komertzio baterako aukera egongo da eta baliteke langileak ez izatea euskaldunak.

6.FUNTSEZKO ALDERDIEN AZTERKETA

Bigarren urrats modura, aztertu da planak jaso beharreko funtsezko alderdiak zertan diren. Eusko Jaurlaritzaren jarraibideak erabili dira analisi hori egiteko. Funtsezko alderdien galdetegia beteta, plana hobetzeko neurri batzuk identifikatu dira. Izan ere, funtsezko alderdi horiek lagunduko dute planaren eragina saihesten edo murrizten. Aldagai batzuk zuzenean daude lotuta euskararen ezagutzarekin eta erabilerarekin, eta beste batzuk zeharkakoak dira, komunitateari eta elkarbizitzari lotuagoak. Izan ere, herriko komunitate bizitza osasuntsu egotea lagungarri da erabilera hazteko. Alderantziz ere bai: erabilera hazteak areagotu egin dezake komunitatearen osasuna.

Planaren izaera. Planaren ezaugarriak egokiak ote diren euskararen garapen positiborako: etxebizitzaren tipologia, espazio publikoaren erabilera, garapen eredua.

Planaren dimentsioa, espazioan eta denboran. Euskarari nola eragingo dion planak ekarriko duen hazkundeak, garatzeko behariko den denborak eta okupatuko den espazioak.

Kokapena. Planak helburu duen leku fisikoa egokia ote den euskararen garapenerako.

Hizkuntza irizpideak. Plana garatzeko prozesuan hizkuntza irizpiderik ezarri ote den.

Aldagai horiek gogoan hartuta, eta plan/proiektuaren helburuak ikusita, honako eremu hauetako alderdien azterketa egin da.

Etxebizitzak eraikitzea da planaren helburu nagusia. Jarraibideak baliatuz egin da analisisa.


Izaera

- * Etxebizitzaren batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?

Bai - Egokituena izateko eskaintza egokiena. Gaur egun ez dago beste aukerarik.

- * Etxebizitzetatik oinarritzko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen du?

Bai - Berdetsua izatea nahi da. Hobetzeko neurriak hausnartzen ari da Udala, pareta saihesteko. Irigarritasuna kontuan hartu da. Igogailua egongo eremura, oinezko ibilbide irigarria egongo da.

- 
- * Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?

Bai - Aurreikusten dira. "Auzo bihotza" plaza kontzeptua.

- * Etxebizitza-erakin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?

Bai - Lau solairu+atikoa. Orain arteko etxebizitzaren tipologia

Dimentsioa

- * Herriaren hazkuntza jasagarria izatea jasotzen al da helburuen artean?

Bai - Eraikuntza faseka egingo da. Goiko legeek arautzen dute. Getaria azpitik dago. Kudeaketa dokumentua

- * Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen da?

Ez dagokio - Dokumentu honi ez dagokio. Baina badago asmoa beste bide batetik lantzeko.

- * Etxebizitzaren eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?


Ez dagokio - Dokumentu honi ez dagokio, baina asmoa badago.

Lekukotzea

- * Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten al da?

Ez dagokio - Ez dagokio

Dimentsioa

- 
- * Etxebizitza turistikoak eraikitzea aurreikusi bada horien proportzioari lotutako neurririk ezarri al da?

Ez dagokio - Dokumentu honi ez dagokio hori zehaztea. Etxebizitza libreen kasuan izan litezke. Besteak etxebizitza erabilera. Udalak badu asmoa arautzeko.

- * Aurreko urteotan (5-10 urte) etxebizitzak egin badira horien eragina neurtu da?

Ez - Ez da neurtu. Dena dela gazteak eta getariarrak dira joan dira azken etxebizitz apromoziora, oro har.

Lekukotzea

- * Etxebizitza turistikoak eraikitzea aurreikusi bada horien kokapenari lotutako neurririk ezarri al da? Adibidez, herri bizitzarako gune esanguratsuan ez egotea etxebizitza turistiko horiek, edo ohiko etxebizitza eskaintzarako egokia den lurzoruan ez eraikitzea

Ez dagokio - Ez dagokio

Etxebizitzaren inguruan eremu irekiak izango dira, eta horiek ere hartu dira aztergai.

Izaera

- * Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?


Bai - Espazio publiko irekiak eta berdegune zabalak eta zuhaitzak aurreikusi dira.

- * Oinezko sareak aurreikusi al dira?

Bai - Badaude

- * Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?

Bai - Aurreikusi da

- 
- * Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?

Ez dagokio - Urbanizazio proiektuan zehaztu behar da

- * Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?

Ez dagokio - Urbanizazio proiektuan zehaztu behar da

Dimentsioa

- * Tokiko beharretara neurritutako espazio publikoak aurreikusi al dira

Bai - Legea dago oinarrian

Lekukotzea

- * Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?

Ez dagokio - Ez dago babestu beharreko ondarerik

- * Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?

Bai - Hilerria, tanatorioa, anbulatorioa, eskola gertu, eskola aretoa, udal ekipamendua aurreikusi da.

- * Espazio publiko irekiak eremu askotan dispertsatzea aurreikusten al da?

Ez dagokio - Ez dagokio, eremu bakarra antolatzen du planak.



Izaera

- * Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen al du?

Bai - Oinarrizko ekipamenduak gertu

- * Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da?

Bai - Bat publikoa, bestea pribatua

- * Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikusten al da?

Ez dagokio - Hitzarmena ez, baina irekiera baimena emetarkoan hizkuntza aholkularitza ematea garrantzitsua izango da.

Dimentsioa

- * Tokiko beharretara neurriratutako ekipamenduak aurreikusi al dira?


Bai - Bai

Lekukotzea

- * Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute?

Bai - Ekipamenduak gertu. Aldapa tarteko, baina irisgarritasuna bermatzeko neurriak aurreikusi dira.

Dimentsioa



* Azken 5-10 urteotan ekipamenduak egin badira horien eragina neurtu da?

Ez - Zarautz jauregia.
Adinekoentzako apartamentuak.

Azkenik, aztertu da hizkuntzaren ikuspegitik zer neurri hartu diren plana gauzatzeari begira.

Hizkuntza irizpideak

* Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak?

Bai - Udalak baditu irizpideak, jarraipena indartu behar da.


* Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak...

Ez - Aurreikustea garrantzitsua izango da: kale izenak, plazaren izena

Neurri osagarriak

* Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integrazioari begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak...

Ez - Euskara planaren bidez landu beharko da.



7. PROIEKTUAREN ONDORIOAK

8.ERANSKINAK

1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza

ERAGINA: 0,00 - Eragin positiboa

2. Tokiko euskararen ezagutza

ERAGINA PROIEKTUA EGIN ETA GERO

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 3,00

Asmoa da etxebizitzak faseka egitea, aukera egon dadin getariarrek eskuratzea etxebizitzak. Bertakoen eskaeraren eraberako eskaintza egin nahi da, beti ere, aukera dagoen heinean. Baina,

ERAGINA DENBORAN ZEHAR

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** **Balioa:** 0,00

Euskaldunak ez direnen seme-alabek euskara ikasiko dute eta euskalduntzen joango dira. Dena dela, egongo dira euskara ikasiko ez duten helduak ere.

ERAGINA: 6,00 - Baxua

3. Tokiko euskararen erabilera

ERAGINA PROIEKTUA EGIN ETA GERO

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** Ertaina **Balioa:** 6,00

Etxebizitza berrietara bizitzera etorriko den gehiengoa Getariakoa edo askota jota ingurukoa izatea espero da. Dena dela, hutsik geratzen diren etxeetara etor daitezke kanpokoak eta tartean euskara ez

ERAGINA DENBORAN ZEHAR

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 2,00

Etxebizitza berriengatik ez da espero aldaketa handirik etor daitekeenik. Izatekotan hutsik geratuko diren etxeetara etor daitekezleelako euskara ez dakitenak.

ERAGINA: 24,00 - Handia

4. Hizkuntza paisaia

ERAGINA PROIEKTUA EGITEN ARI DEN ARTEAN

Eragin mugatua: eragin proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 0,50

ERAGINA: 0,50 - Eragin positiboa

5. Egitasmoaren komunikazioa

ERAGINA PROIEKTUA EGITEN ARI DEN ARTEAN

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 1,00

Ez dago Udalaren esku, baina jarraipenerako aholkuak eman

ERAGINA: 1,00 - Baxua

6. Euskarazko zerbitzuen eskaintza

ERAGINA PROIEKTUA EGIN ETA GERO

Eragin mugatua: eragin proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 2,00

Komertzio baterako aukera egongo da eta baliteke langileak ez izatea euskaldunak.

ERAGINA DENBORAN ZEHAR

Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da

Eragin mota: - **Intensitatea:** Baxua **Balioa:** 2,00

Komertzio baterako aukera egongo da eta baliteke langileak ez izatea euskaldunak.

ERAGINA: 4,00 - Baxua

**GETARIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
“H.E. XVIII POTZUAGA-GAINA” EREMUARI DAGOKIONA**

2024ko Iraila

2. Dokumentua. “HIRIGINTZA ARAUAK”

Jarraian, proposatzen den aldaketa onduz Potzuaga-gaina eremuari dagokion Hirigintza Arau Partikular bateratu berria aurkezten da.

Donostia, 2024ko Iraila




Santiago Peñalba Garmendia
Arkitektoa



Iñigo Peñalba Arribas
Arkitekto Doktorea



Carmen Segurola Lázaro
Geografoa eta Ingurumen Ikasketetako Masterra



Mikel Iriondo Iturrioz
Abokatu

Helbidea: Portuetxe bidea, 63-3.a A, Donostia-San Sebastián PK 20018-
Telefonoa: 943224208 - Helbide elektronikoa: santi@emeseme.com

H.E. "XVIII – POTZUAGA-GAINA"

(Azalera: 29.489 m²)

I.- ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

- * Udalerriko bizitegi-eskariari erantzutea, bizitegi-garapen berri bat proposatuz, finkatutako hiri-eremuarekin jarraituz, eraikuntza irekiko bloke-tipologia batekin.
- * Sahatsaga eta Herrerieta kaleak elkartutakoan, zuzeneko okupazio aurreratuaren bidez gauzatuko dira, horretarako sinatutako hitzarmenen bidez, eta eremu osoaren gainerako garapena aurreikusten da.
- * Bizitegi-garapena antolatzea, eta, hori gauzatzeko, Urbanizatzeko Jarduketa Programak bi egikaritze-unitate edo gehiago mugatzea proposatuko du, jarraitu beharreko jarduketa-sistema finkatuz.
- * Eremuaren hirigintza-eraikigarritasuna arrazoiz handitzea, egungo egoeran ekimenaren bideragarritasunari laguntzeko.
- * Udalerriko espazio libreen sistema orokorrean integratzeko behar den lurzorua lortzea, hilerriaren ondoko begiratoki gisa kokapen estrategiko batean.
- * Arean Herrerieta kalearen trazadura berrantolatzea, kale horren trazadura hobetzeko, proiektatutako eraikuntza gauzatu ahal izateko eta Potzuagako eremurako sarbidearekiko elkargunea hobetzeko.
- * Eremuaren garapenari dagozkion ekipamenduak eta espazio libreak antolatzea.
- * Eremua drainatze-baldintza egokiez eta ahalik eta iragazkortasun handienaz hornitzea, bizitegi-garapen berrirako beharrezkoak diren zerbitzu-azpiegiturak konpontzea eta energia-efizientziaren arloko neurriak sartzea.
- * Eremuaren mugaketa egungo egoerara egokitzea.
- * Eremu osoaren antolamendu xehatua zehaztea.
- * Donejakue bidearen eremuan jarraitutasuna hobetzea.

H.E. "XVIII" (Jarrai.)

II.- HIRIGINTZA ARAUBIDE OROKORRA.

1.- KALIFIKAZIO OROKORRA

* **A.2/XVIII ZONA** (Eraikuntza irekiko bizitegia)..... **(Azalera: 26.085 m²)**

- Eraikitze baldintza bereziak:

- Sestra gainean antolatutako hirigintza-eraikigarritasuna:21.000 m²(t)
- Zonako eraikigarritasuna (orientagarria):.....0,805 m²(t)/m²
- BPSErako (VPPS) gutxieneko eraikigarritasuna:..... 11.385 m²(t)
- BPE (VPP) tasatuetarako gutxieneko eraikigarritasuna:.....4.140 m²(t)
- Etxebizitza libreetarako gutxieneko eraikigarritasuna:5.175 m²(t)
- Hirugarren sektoreko erabileretarako gutxieneko eraikigarritasuna:300 m²(t)

· Sestra azpian antolatutako hirigintza eraikigarritasuna:

- . Gutxienekoa:9.110 m²(t)
- . Gehienez:15.630 m²(t)

- Erabiltzeko baldintzak:

· Plangintza orokorrak A.2 Eraikuntza irekiko bizitegi-zona globaletarako ezarritakoak.

* **E.1/XVIII ZONA** (S.O. Komunikazioak)..... **(Azalera: 1.670.-m²)**

Zona horretako eraikuntza- eta erabilera-baldintzak Plan Orokor honetan zona horretarako oro har ezarritakoak dira.

* **E.1/XVIII ZONA** (S.O. Espazio Libreak)..... **(Azalera: 1.734.-m²)**

Zona horretako eraikuntza- eta erabilera-baldintzak Plan Orokor honetan zona horretarako oro har ezarritakoak dira.

2.- GARATZEKO ETA BETEARAZTEKO ARAUBIDE JURIDIKOA.

* Lurzoruaren sailkapena:

- LURZORU URBANIZAGARRI SEKTORIZATUA.

H.E. "XVIII" (Jarrai.)

- * Plangintzaren garapen- eta egikaritze-araubidea:
 - Antolamendu xehatua maila horrekin zehazten da dokumentu honetan.

- * Aurreikusitako hirigintza-garapena programatzeko eta gauzatzeko araubidea:
 - Eremuan aurreikusitako hirigintza-garapena programatzeko eta gauzatzeko araubidearen baldintza zehatzak eta behin betikoak sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programan (HJP) zehaztuko dira.

 - Dagoeneko gauzatuta dagoen bide-sistema orokorra egikaritzeko kostuak ordaintzea ez da garapen berriaren karga izango, horren inguruan sinatutako hitzarmenetatik ondorioztatzen dena izan ezik.

- * Jarduketa-programa:
 - HJP hori udalean aurkeztuko da, gehienez ere urtebeteko epean, dokumentu hau behin betiko onartzen denetik zenbatzen hasita. HJP horretan, eremua gauzatzeko hurrengo programazioa zehaztuko da.

III.- ANTOLAMENDU XEHATUA.

1.- KALIFIKAZIO XEHATUA.

- * Eremuko zonakatze xehatuaren baldintzak eta, bereziki, ondoriozko hirigintza-partzelak dokumentu honetan definitzen dira eta grafikoki adierazten dira II.3 planoan.

- * Identifikatutako hirigintza-lurzatiak, era berean, dagozkien birpartzelatze-proiektuak formulatzean zaitu ahal izango dira, betiere gutxienez 200 m²-ko lurzattia badago.

- * Hirigintza-eraikigarritasunaren araubide juridikoa eta erabilera-baldintzak:
 - . Bizitegi-eraikigarritasuna (Babes Publiko Soziala): 11.385 m²(s).
 - . Bizitegi-eraikigarritasuna (Babes Publiko Tasatua): 4.140 m²(s).
 - . Bizitegi-eraikigarritasuna (Librea): 5.175 m²(s).
 - . Hirugarren sektoreko eraikigarritasuna: 300 m²(s).
 - . Garajeen eta erabilera osagarrien eraikigarritasuna (sestra azpian):15.630 m²(s).

H.E. "XVIII" (Jarrai.)

* Eraikitzeko baldintzak:

Bizitegitarako hiru lurzati identifikatzen dira, nahiz eta, gero, partzelaren gutxieneko tamaina kontuan hartuta, partzelak zatitu ahal izango diren.

- a.20.1. Lurzatia.
 - Hirigintza-eraikigarritasuna:
 - . Sestra ganean:
 - Babes publiko sozialeko etxebizitzetarako bizitegi-erabilera: 11.385 m²(s).
 - Babes publikoko etxebizitza tasatuetarako bizitegi-erabilera: 4.140 m²(s).
 - Hirugarren sektoreko erabilera beheko solairuan: 300 m²(s).
 - . Sestra azpian: 13.040 m²(s).
 - Beheko solairuko eraikigarritasun fisikoa: 300 m²(s).
- a.20.2. Lurzatia.
 - Hirigintza-eraikigarritasuna:
 - . Sestra ganean:
 - Bizitegi-erabilera librea: 3.450 m²(s).
 - . Sestra azpian: 1.808 m²(s).
- a.20.3. Lurzatia.
 - Hirigintza-eraikigarritasuna:
 - . Sestra ganean:
 - Bizitegi-erabilera librea: 1.725 m²(s).
 - . Sestra azpian: 782 m²(s).
- g.00.1. Lurzatia.
 - Eraikigarritasun fisikoa: 1 m² (s)/m² sestra ganean eta 0,66 m² (s)/m² sestra azpian.

Eraikuntza-baldintzak, bestalde, arau partikular honen eremuari buruzko grafikoetan eta II.4 planoan zehaztutakoak dira. Sestrapeko garajeetara sartzeko pasabideen identifikazioa gutxi gorabeherakoa da.

a.20.1 lurzatiaren zati baten ganean plaza bat antolatu da, eta, horretarako, sestra azpiko garajeen solairuaren ganean landaretza ezartzea eta zerbitzu-azpiegiturak igarotzea errazteko altuera egokia izango duen espazio bat aurreikustea proposatu da.

H.E. "XVIII" (Jarrai.)

* Bizitegi-eraikuntzaren forma erregulatzeko parametroak:

- Eraikuntzaren gehineko profila: IV + ático/II
- Eraikuntzaren gehineko alturera (atikoak izan ezik -+ 3,00 m.): 13,50 m.

Nolanahi ere, Arau Berezi honetako grafiko bakoitzean lurzati bakoitzerako xedatutakoari jarraituko zaio.

* Jabetza- eta erabilera- baldintzak:

Plan honetan azpizona xehatu ordenatuen tipologia bakoitzerako ezarritakoak, Arau Berezi honen eremuari buruzko grafikoetan zehaztutakoaren arabera.

Merkataritza-erabileretara bideratutako eraikin berriaren beheko solairuek, neurri batean, azalera hori eduki ahal izango dute, bai atariak antolatze eta goiko solairuetako bizitegi-erabilerarako beharrezkoak diren erabilera osagarriak egiteko (bizikletak aparkatzeko gelak eta instalazioak, trastelekuak...), bai arrapalak eta garajeetarako sarbideak jartzeko. Hala ere, ezin izango dute ekipamenduetarako eraikigarritasun fisikoa xedatu.

a.20.1 lurzatian, erabilera publikoko zortasunaren mende dagoen espazio bat identifikatzen da, eta, bertan, plaza antolatzen da, II.4 planoan jasotzen den bezala.

Gainera, zuzkidura publikoetarako lurzati hauek identifikatu dira:

- e.11.1:

Bide-sistema orokorrari dagokio.

1.670 m²-ko azalera du.

- e.12.1:

Akerregi, Akerregi, Herrerieta eta Sahatsaga kaleei dagokie.

5.657 m²-ko azalera du.

- e.12.2:

Bat dator Sahatsaga kalearekin eta hilerrira sartzeko kalearekin.

3.644 m²-ko azalera du.

H.E. "XVIII" (Jarrai.)

- f.20.1:
Espazio libreen sistema orokorrari dagokio.
1.734 m²-ko azalera du.
- f.20.2:
Plaza berriaren inguruan antolatutako parkea da.
4.022 m²-ko azalera du.
- f.20.3:
Lormendiko aldaparen ondoko parke antolatua da.
2.294 m²-ko azalera du.
- g.00.1:
Antolatutako ekipamendurako lurzatiari dagokio.
841 m²-ko azalera du.

Ondoriozko lurzati-tipologiei aplikatu beharreko araubide orokorra indarrean dauden Arau Subsidiarioetan ezarritakoa da.

2.- URBANIZAZIO-OBRAK ETA HIRI-ZERBITZUEN AZPIEGITURAK.

* Eremua antolatzeko beharrezkoak diren urbanizazio-obra guztiak, lehendik dauden bideak aldatzeari dagozkionak barne, eremua udalerriko hiri-eremuan behar bezala integratzea ahalbidetzen dutenak, antolatutako eraikigarritasunari esleitutako kargak dira. Obra horretatik kanpo geratzen da Herrerrieta eta Sahatsaga kaleen loturari dagokion eremuan gauzatutako obra; hala ere, horri dagokionez, Udalak eta zenbait jabe sinatutako hitzarmenetan ezarritakoari jarraituko zaio, hitzarmen horiek konpentsazio bat ematen dieten lursailak alde aurretik eskuratzeko.

* Horien artean sartzten da irisgarritasun unibertsala bermatzeko beharrezkoa dena: eremuan igogailu publiko berri bat ezartzea; aireko linea elektrikoa lurperatzea eta transformazio-zentro berri bat aurreikustea; eta, era berean, drainatze-sarea, lekuan urak behar bezala biltzea bermatuko duena.

